


Astekaria

BARREN

elgo

Hiltzea ere kosta egiten zaigu



iklus
OPTIKA
 OPTIKO-OPTOMETRISTA
 San Frantzisko, 16
 Tel. 74 37 34
 ELGOIBAR



BET/11717FTC0; f1'ff09 1-V f'.f.,d)ft(1' 1
 zW;tif.7-1(5 rkFr) F.f.77-tif;
OPARITUKO DIZKIZUGU
Adin guztientzat!
 (Eskaintza mugatua)

EIBARKO LIBLI AZONA

AZAROAREN Itik 20ra

EUSKAL ETA ERDAL

NOBEDADEAK

EUSKAL DISKAGINTZA

HATOR BELDURRIK GABE!

%10
Beherapena

OLDUTEGIA

LANEGUNAK: Goizez 1 1,30 - 14,00 Arratsaldez 1 7,30 21,30

JAIEGUNAK: Goizez 12,00 14,30 Arratsaldez 17,30 - 22,00

elgoiBARREN
Nafarroa enparantza 2
's 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILLIA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainfloa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maite Rementeria,
Edu Sanz.

PuBuznATEA:

Nekane Efixan iz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Afdazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Eixabe, Asier Elxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etzeberria, Izaro Etxegibel, Enez Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdas, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Guillio, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Larrataga, Imanol Larratiaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iitaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inazio Sarasua, Othana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabuleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

knanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoiBARRENez ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ZENBAT BURU



HA1NBAT ABURU


Sasoi 14onetan

Urriko ilberrian, elurra Aizkorrin" dio esaera batek. Aurtengo urriak, berriz, ez digu elurrik utzi. Azken egunotan, haizea ez dakit nondik izan dugun, baina uso pasan ibiltzen diren ehiztarietako egokia izan da. Kaltegarria, a]diz, ipar aldeko lurralde hotzak atzean utzi eta lur epelagoetara joan nahi duten uso gizajoentzat. Jakina da Euskal Herrian, ehizak aditu eta zaletu asko dituela eta urteko sasoi honetan uso ehizan ibili ohi direla. Zuberoako eta Nafarroako zenbait tokitan sareharrapatzen dituzte. Beste toki askotan berriz, eskopetaz. Baina garai batean iharduera edo zeregin ekonomiko hutsa besterik ez zena, egun denbora pasarako aukera bilakatu zaigu. Eta hauxe da hain zuzen ere, nire buruak hain erraz onartzen ez duena. Askotan aditzera eman digute, gizakia dela beste animalia guztien artean zentzudunena. Baina benetan zentzuz dihardugu gure atseden ordu libreak betetzeko beste izaki errugabe batzuren biziaz akabatzen dugunean? Ehiztariak ez dira nirekin ados egongo. Eta ehizaren aldeko hamaika

argumentu izango dituzte, nik esaten dudaren kontra, ehiza, danbora pasa, hutsa ez dela adierazteko. Ehiztari asko ezagutzen ditut. Familian ere ehiztaririk badut. Mendia atsegin dute. Eta neurri batean, naturzale ere badira. Eta horixe da kontraesanik haundiena. Animalien babesa, ekologia, ingurugiroa zaindu eta errespetatu... aise erabiltzen ditugun hitzak dira. Jakin berri dugunez, Euskal E]karte Autonomoko biztanlegoaren kezka nagusienetako bat ingurugiroa zaintzea omen da. Eusko Jaurlaritzako lehendakartzak, hiritarren kezka nagusienak zeintzu diren jakiteko, egindu duen inkestaren emaitzek hala diote behintzat. Baina inkestak beti dira inkesta eta zenbaiterainoko sinisgarritasuna duten bakoitzak ikusi beharko du. Dena den eta guztion onerako gure kezkak ez daitezela horretan bakarrik gelditu eta ingurua babesteko prest gauden guztiok egin dezagun gure eskuetan dagoena horren alde.

Olga Unzilla

*Eusko aurlaritzako
Kultum Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



Noizko babes ofizialeko

etxebizitzak Elgoibarren?

Hiri_gintzako teknikariek in e_gon_gara eta asmoa bada_goela esan di_gute. Intentzioa Ikastola eta Itli_guez Karkizanoko etxeen artean dauden terrenoetan e_gitea omen da baina, oraindik lurrak erosi gabe dauzka Udalak.

Etxebizitza hauen Plan Partzialak hasi omen dira aztertzen eta lantzen. Noizko? Galdera horri ezin diotela erantzun _gehitu di_gute.

XEZI

Urasandiko irakurle batek idatzi digu zera esanez: "47, 45, 43 eta 41 portalen pareko espaloia oso labainkorra da. Euria e_giten duenean ezin da bertatik ibili eta bidetik ibili behar izaten du_gu honek dakarren arriskuarekin".

I11110111

Antzerkizale batek deitu digu Herriko Antzokian hilero antzerki emanaldi bat eskaintzea benetan ideia interes_garria iruditzen zaiola esateko. Txalotzekoa beraz, Udalaren inizatiba. Bukatzeko, zera _gehitu di_gu: "Ea euskarazko antzerki_gintzari merezi besteko tokia e_giten dioten".

SOS Balkanes

EI_goibarko parrokiako _gazte talde ffbatek, SOS BALKANES-ekin kolaboratuz, Bosniako e_goera salatu eta egoera honi la_guntza emateko talde bat sortu dugu. Mementuz, gure ekintzak hauek izango dira: abenduaren 3 eta 4an kuestazioa e_gin_go da eta zenbait _gauza salduko ditu_gu. Negura be_gira, kanpaina bat antolatzeke asmoz _gabiltza baina honi buruzko informazioa aurrera_g eman_go dizue_gu.

Besterik _gabe, abenduko lehen aste bukaera horretan denok zuen la_guntza eskainiko diguzuelakoan agurtzen gara.

Elgoibarko SOS BALKANES

Ma"NIP"ulazio baten istorioa

Eusko Jaurlaritzak Interbentzio Gune Parteharzaileetan (IGP-NIP) oniritzi sozial txikiena jaso zuen alternatiba bultzatzen ari dela salatu nahi du_gu. Azkenean biztanleen iritzia eta ondorioak alde batera utziz, autopistaren aldeko apostua e_gin baitu.

Jadanik autopistaren aurreproiektua aurkeztu dute udaletxeetan eta esan behar dugu, aurreproiektu hau 91. urtean e_gin zela, beraz, zaharra da eta gainera ez ditu IGPTan ateratako ondorioak kontuan hartzen.

IGPTan azaldu zenaren arabera, herritarren 9)80ak e_gun_go errepidea hobetzea nahi du. Errepide azkarraren aldekoak %15 besterik ez dira eta peajearen aldekoak %5.

Beraz, esan dezakegun bakarra zera da: Eusko Jaurlaritzaren jarrera _guztiz autoritarioa dela.

Debasak azkar asko esan du IGPTan ateratako ondorioak kontuan hartuko dituela, baina bide honetatik _gazki doaz. IGPTako emaitzak eza_gutu eta berehala hasi ziren irakurketa tendentziosoa. Administrazioaren maniobra _garbia ikusi _genuen haseratik. NIP-IGPak martxan jarri zituzten herri mu_gimenduaren ahotsa isilarazteko, uste zuten bailarako biztanlegoa autopistaren alde azalduko zela, baina azkenean...

Askok eztabaidatu eta gero IGPTan parte hartu _genuen. Azkenean denborak, "Gizarteaz enpresak" eta administrazioak arrazoa eman di_gute, _guztia aurpe_gia _garbitzeko maniobra bat besterik ez zen.

Guzti hau Iotsa_garria izanik _gainera autopistaren afera saskibaloiarekin nahastu dute, (gogoratzen al zarete 1991ko udan Foru Aldundiak Askatuak saskibaloitaldeari e_giniko proposamena? Foru Aldundia dirua emateko prest ze_goen "Leitzarango autobidea" izena jarriz _gero) Arrasate saskibaloit aldea diru publikoz finantziatuz, EBA li_gan "Maltza_ga-Urbina irtenbidea" eslo_gana eramatea lortu du Debasak.

Uste du_gu DEBASA, kirol erakunde baten egoera larriaz baliatu dela, kirolaren erabilera iguingarria e_giten ari dela eta honelako jarrera zikinekin garbi _gelditzen dela norainoko borondate maltzurra daukaten.

Azkenik berri on bat, Debasak ziurtatu zuenez Bilbo-Behobia autopistaren peajea ez da luzatuko, beraz, 2003. urtetik aurrera A-8 autopista dohainik erabili ahal izan_go du_gu. Ea e_gia den, edo _gazki ulertu al du_gu?

Deba bailarako Eguzki





ofi ste honetako erretratua, izenik ematerik nahi izan ez duen lagun batek Iaga digu. Erretratua **1943. urtekoa da.** Esan digutenez, erretratuko musikoa inguruetako herrietan ibiltzen ziren musika jakinduria erakusten.

Ihauterietan, berriz, "La **Estudiantina**" karrozan irteten ziren Elgoibarko kaleak kantu-kantari

pasatuz. "El **Elgoibarres**" zine zaharrean jaialdiak egiten ziren eta han ere parte hartzen omen zuten. Igerriko zenuten bezala, erretratua Arraten aterata dago eta **Casimiro Etxanizen** ezkontza egunekoa dugu.

Zeintzuk diren erretratukoak? Ezkerretik hasita: **Jose M. Etxaniz (t), Luciano Ezenarro (I), Florentino Etxeberria (?), bilbotarra, Antonio Arrillaga (t)** eta **Juanito Etxaniz.**


HISPANIA ^r ZURICH

C. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

KArtekale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29 08_/_/



DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Fotero

OKINDEGIA
OPILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

XABIER

I LEAPAINDEGIA

E.4.

e9~, eta ~4e,a,

Son Bartoioime 13, Tei. 74 19 97

INTERIORES

- SUKALDE ETA BAINUAK
- PROEKTU ETA ERREFORMAK
- DEKORAZIOA
- ERREGALUAK

Tel: 74 40 55 74 40 19.
Errosario 15 Bellea.



KAFETEGIA
74 42 65

525`71/4

ikapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 40, 1 tel. 74 11 90

Domusantu eguna



eriotza bizimodu baten bukaera eta beste baten hasera dela uste dutenak asko dira euskaldunon artean eta horrela uste izan dute gure aurreko euskaldun gehienek ere.

Askoren ustetan, norbait hiltzen denean ez da bukatzen dena harentza.t. Euskal Herriak, beste herri gehienek bezala, irtenbide bat eman dio gizakiaren arazo nagusienetako bati: gizakiak munduan duen egitekoari.

Antzinako euskaldunek ziotenez, forma erritualak hausteak hildakoaren kondena ekar zezakeen. Euskal hileta-erritualaren ohitura desberdinetan bizidunak hildakoaren bitarteko izan dira beti, nahiz eta, gaur egun, kale giroko ohitura eta elizkizunetan aldaketa asko eman diren.

Euskal Herrian bizidunek hildako guztiak gogoratzen dituzten egun seinalatu batzuk daude: Domusantu Eguna eta Difuntuen edo Animen Eguna esate baterako.

Orain dela gutxi arte Domusantu egunean etxe guztietako sepulturak apaintzen ziren kandela eta argizaiolen bitartez. Aspalditxoago ogiak (olatak) ere eskaintzen ziren. Argia eta janaria hildakoei laguntzeko zela uste zen. Lehen, Arimen Egunean, gaztainerre-eguna ospatzen zen eta hildakoaren arima elikatzeko balio zuela uste zen.

Euskal hileta-erritualaren ohitura desberdinetan bizidunak hildakoaren bitarteko dira. Domusantu eguneko elizkizun guztietan hildakoaren familiako emakumeren batek ordezkatzeko zuten sepultura. Arbasoengandiko betebeharrangatik mezak eskatzen zituen.

Gaur egun orduko ohitura gehienak aldatu egin dira eta Domusantu egunean hilerriak bisitatu eta hilobietan lorak eskaintzen dira. Komunikabideek eta modak ezarritako "ohiturak" nagusitzen ari dira. Moda horien eraginez jende asko joaten da hilerriera loren eskaintza egitera eta, herrialde gehienetan jarraitzen den ohitura denez, egun horren ospakizuna unibertsalagoa bihurtu da.



ALBERTO AGIRREAZALDEGI

Cordon, Vilarchao, c.b.
nEKCDRAZICDA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

GRANDALO

OIHALA

era

MERZERIA

Errosario 8. Tel: 74 35 95

01

ELGOIBAR

Zer da zuretza Do roantu eguna?



OIER GURRUTXAGA
18 urte, ikaslea

Nerretzat ez dauka esanahi berezixa, ni ez naiz juten kanposantura. Hara jutiak eta lorak eruatiak beste batzuentzat zentzua izan dezake.



MARIVI GONZALEZ
40 urte, dendaria

Egun oso triste eta gogorra da, sekula ez zait gustatu. Dena dela kanposantura joateko ohitura daukat, bezperan, egunean eta urtean zehar ere bai.



M.LUISA ARRIZABALAGA
50 urte, dendaria

Hildakuak gogora ekarri, kanposantura jun, lorak eruan, panteoia garbitxu... Egun berezixa da nerretzat. Eibarrera ere juten gera.



BLAS GARCIA
52 urte, txoferra

Desagertu diren pertsonak gogoratzen ditugu. Gure familia Zaragozan dago eta loreak bidaltzen ditugu. Bisita, ahal dugun guztietan egiten dugu.



LOLA GIL
77 urte, etxeoandrea

Tristia izaten da oso, familixan hildakuak gogoratu itxen jataz eta. Egun horretan bakarrik juten naiz, urtero urtero, amari eta daneri lorak eruatera.



JOSEBA RETOLAZA
22 urte, ikaslea

Nik baztertuta dauzkat horrelako gauzak baina jendiantzat inportantia izan leike. Aitxitxa kanposantuan zauanian juten girtan baina oin ez.

OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

(943) 11 35 15 • **ABERIAK** (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) 20600 EIBAR

99-~ 'Vectet:a Sei~e~

ARozTEG1A- OBRAK- IGeLTSARITZA

Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68



■ Udal ludoteka hilaren 6an irekiko da berriz ere

Udal Kultur Zerbitzuak antolatutako ludotekak igande honetan, hilak 6, irekiko ditu ateak. Hiru begiraleren ardurapean denetariko jolasekin ibiltzeko aukera izango dute hurrek: saskibaloia, futbolina, pin-pona... Iaz 100 haur inguru apuntatu ziren; asmoa aurten kopuru hori gainditzea da. Ludoteka arratsaldeko 3,30etatik iluntzeko 7,30ak arte egongo da zabalik. Sarreraren zenbatekoa 200 ptakoa izango da hil osorako.

■ 16 gazte konfirmatuko dira igandean Maalan

Maalako eliz barrutiko 16 eta 17 urte bitarteko 16 gaztez osatutako talde batek sendotza jasoko du Jose Maria Setien gotzainaren eskutik, igande honetan, hilak 12, eguerdiko 12,30etan hasiko den elizkizunean. Sendotza ekainean ospatzen badute ere, azarora arte itxoin behar izan dute, Herriko Antzokia martxan jarri arte, hain zuzen. Sendotza Maalako kaperan egitea dagokie berez Maalako eliz barrutikoei, baina pertsona gutxi kabitzen direnez, Antzokian egitea erabaki dute. Sendotza hartu aurretik 3 urteko prestakuntza izan ohi dute gazteek. Azken urteotan gora egin dute kopuruz sendotza taldeek. OHO bukatu berri duten ikasleek sendotza taldeetan hasteko interesik edukiz gero, Jose Luis Bellosorekin jar daitezke haremanetan. Bilerak Guass gaineko lokaletan izaten dira.

■ "Las amazonas del caballo" Herriko Antzokian

Durangoko "Geroa" antzeztaldeak "Las amazonas del caballo" antzezlana taularatuko du gaur, ostirala, hilak 4, Herriko Antzokian gaueko 22,15etan. Gazteei zuzenduriko lana da. Droga munduari buruzko errealitatea erakusten du heroina hartzen hasi diren gazte batzuen esperientzia kontatuz. Sarreraren prezioa 350 pta da.

634 errepidea 3 metrotan zabaiduko dute Sigmatik Maltzagaraino



Gipuzkoako Aldundiko Errepide izango lituzke norabide bakoitzean, Sailak, 634 errepide nazionalari 3 eta metro t'erdiko arzena albo metroko zabalera gehitzeko obrei bakoitzean. Lanen aurrekontua ekingo die urte bukaera baino 385.676.832 ptakoa izango da. lehen. Lanen hasera eguna ez da Bestetik, duela bi aste hasi ziren zehaztu, baina ziurra da azaroaren 634 errepideko pretil berria eraiki-bukieran edo abenduan hasiko diretzeko obrak aste honetan bertan la. Asmoa Kanposantutik Maltzagaraino bukatuko dira seguruenek. Aldundigarainoko errepidearen aldameneko Errepide Sailak Lauko baserri-tan metro t'erdiko arzena egitea da Urasandiko autobus geltokira arte-eta errepideko zenbait bihurtzeko bidean jarri du pretil berria, kentzeko asmoa ere ba omen dute. lehenago zegoena egoera kaxkarre-Errepideko kaltzadak 3,5 metro an baitzegoen.



Elkarrik, Euskal Herriaren bake prozesurako herri plataformak, 10 gairi buruzko galderaz osatutako inkestak banatu ditu. Hamar gai hauek aldeztu aurretik egindako galdeketa baten emaitza dira. Nahi duten herritarrek modu anonimo batean erantzun ahal izango diete galderari. Larunbat honetan Elkarrikoek mahai informatiboak jarriko dituzte berriro Plaza Handian, inkestak bertan entregatu ahal izango direlarik.



San Bartolome elizake sabaiaren obrak enitmo onean ari dira burutzen Obren Batzordeak jakinarazi duenez. BRUES S.A. enpresa da lanak burutzen ari dena. Lehen fasearen barruan sabaiaren konponketa, barruko hormen garbiketa eta pintaketa eta argi eta soinu sistema berria sartzeko dira. Soinu eta argi sistema berria beranduago egiteko asmoa bazuten ere, lehen faseko lanekin batera burutzea erabaki du batzordeak. Lehen faseko lanak apirilerako prest egotea espero da.



Patinak modan daude nonbait. Hala adierazten du behintzat Deba Beheko eta Garaiko Udalek antolatutako "Kiroia Euskaraz" programaren baitan burutzen ari den patin ikastaroan izena eman duen patinatzaile kopuruak. 40 pertsona ari dira ikastaroan, hauetatik 15 elgoibartarrak dira. Azken klasea Iarunbat honetan izango dute Kiroidegiko frontoian Joxean Iñarra bergararraren eskutik. Aurrera begira, Gabonen ostean ziurrenez, beste ikastaro bat antolatutako da Deba Garaiko eta Beheko biztanleentzat.

111 "Festa Do Magosto"

Elgoibarko Galiza Etxeak gaztainak erreko ditu datorren igandean, hilak 13, urtero sasoi honetan egiten duten bezalaxe. Gaztainak erretzeari "Festa do Magosto" deitzen diote. Arratsaldeko 4,30ak aldera Chaves tiraldia jokatu da eta 6,30etan Verin-etik (Orense) ekarritako gaztainak erretzeari ekingo diote. Jatekoari laguntzeko, Galiziako ardoa banatuko da. Dastaketa doan izango da bertara hurbiltzen diren guztientzat.

■ Haritz-ek Alemaniara joateko gonbftea jaso du

Haritz Dantzari Taldea Alemaniako Magburbo hirian datorren urteko ekainean burutuko den Nazioarteko Folklore Jaialdian parte hartzera gonbidatu dute. Hiri hau Hessen probintzian kokatuta dago, hiriburutik, Wiesbaden-etik gertu. "Froehlieher" izeneko bertako dantza taldearen eskutik jasotako gonbidapena ez da Haritzek jaso duen bakarra. Abuztuan Belgikan izan zuten arrakasta eta gero, Polonian eta Irlandan dantza egiteko (Yonbitea izan zuten).

■ Zinea guraso eta seme alabentzat

Irueli Biziak programaren barruan "Heroe por accidente" filmea eskainiko da Herriko Antzokian OHoko haurrei zuzendua. Goizeko 9etan izango da emankizuna. Ildo beretik, Irudi Biziaken eskutik, gurasoentzako Osasun Heziketarako Programaren barruan, lehendabiziko filmea eskaini zen hilaren 2an. Hurrengo pelikula hil honen 29an, asteartea, eskainiko da Herriko Antzokian arratsaldeko 7etan. Filmearen izenburua "Corazon indomable" da. Bukaeran filmean planteiatzen diren gaiak buruzko eztabaida egongo da.

Gemma Monreal:

"Margoaren bidez Elgoibar ezagutarazi nahi dut"

Hamaika urte zituenean Luciano Ruiz Poveda elgoibartarraren eskutik hasi zen margotzen eta ordutik ez da gelditu. Oroitzapenean ahaztuta dauden gauzak berreskuratzen saiatzen da, aintzinako txoko, paisaia, baserriak eta bestelakoak ez daitezen galdu. Erakusketak egin ditu inguruko herri

gehienetan. Gaur egun 75 koadro inguru ditu erakusketatan azaltzeko eta etxean lekurik ez daukanez Gasteizen eta Eibarren gordetzen ditu. Ez zaio geldi egotea gustatzen, sortzea atsegin du, etengabean. Elgoibarko Parrokiako jaiotza egiten dutenen artean ere zazpi urte daramatza, eta oso gustura gainera.

- Zer adierazi nahi duzu zure margoekin?

Nere nahia bilatzea da, ez adieraztea. Elgoibarren gauza asko galtzen ari dira, baserri zaharrak, paisaiak... Zerbait izkutatzen duen guztiak, denboraren eraginez ahaztu egiten diren gauza guztiak erakartzen naute.

- Zer motako margoak egiten dituzu?

Errealismoa margotzen dut normalean. Paletarekin margotzen dut eta gehien erabiltzen ditudan koloreak berdeak eta okreak dira. Guzti honetan eragina izan dezakete erabiltzen ditudan gaiak.

- Zer da jendeak gehien eskatzen duena?

- Paisaiak, baserriak, familien argazkiak dira jendeak enkarguz gehien eskatzen dizkidanak. Honetaz gain, batzuetan nik nahi dudana inargotzeko esaten didate eta kasu horietan askatasun handiz joka dezaket.

- Bizitzeko aukera ernaten al du honek?

- Nik gustatzen zaldalako margotzen dut, ez dirua irabazteko. Saltzen dudan neurrian margotzen jarraitzeko aukera daukat. Ez dut hilero soldata fijo



"Saltzen dudan neurrian margotzen jarraitzeko aukera daukat"

bat jasotzen baina urte guztiko kontuak eginez, bizitzeko beste irabazten dudala esan dezaket. Kontuan hartu behar da koadroak 40.000 eta 500.000 pta bitartean saltzen ditudala.

- Margotzerakoan kopia-keta ala irudimena?

- Ez dut inoiz kopia-tzen. Margolari batek ezin du beste batek egindakoa kopiatu nahiz eta kasu batzuetan argazkiren batetik kopiatu, beharrezkoa

denean. Abstraktoa ez dut sekula egin baina errespetatzen dut. Nere ustez interesgarriagoa da jendeak ulertuko duen zerbait adieraztea eta ez jendea ezer ulertu gabe geratzea.

- Zer nolako laguntzak dituzue?

- Galeria pribatuak irtenbide ona dira margolariarentzat baina salmenten %40a eskatzen dute eta horregatik ez dira apenas erabiltzen. Pena bat da. Gainera, propaganda nor-

berak ordaindu behar izaten du berea. Hori dela eta, udaletxeetako, kultur etxeetako eta aurrezki kutxetako erakusgelatan ariztortzen naiz, hauek erreztasun gehiago ematen baitituzte. Mugak badaude baina poliki poliki gaitzen doaz. Salmentak igotzen diren neurrian galeria pribatuaren aritzeko aukerak handitzen dira.

- Zer eskatzen diozu margolaritzari etorkizuneari?

- Nere ilusio handiena herrialde guztietara heletzea da. Nere estilo propioagatik ezaguna izatea nahi nuke, nere estilo propioa izan nahi dut, horretan ahalegintzen naiz. Margoa eta Elgoibar ezagutarazi nahi ditut.

- Ba al daukazu bitxikeriarik?

Lasturko baserri bat margotzen negoen goiz batean emakume bat gerturatu eta zera galdetu zidan: "Mesedez Gemma, zergatik ez didazu baserria berriagoa margotzen?". Den baino zaharragoa dirudr. Barregura eman zidan zeren eta baserriak zeukan aintzinako izaerak, ezaugarri zaharrak erakarrininduen.

MAITE IRIONDO


LEFERRBISZSALISZAN

Ganadua ezezik astoak ere izan ziren ferian

Ez dakigu garaia ote den edo noizean behin etortzen diren feriara. Joan den zapatuko ferian astoak ikusi genituen salgai. Orain arte ganadua, makinaria eta bestelako tresneria ikustera ohituak bageunden, oraingo honetan, horrenbeste asto ikusteak harritu gaitu, guretzat bitxia zelako behintzat. Kasualitatez, gainera, aste honetako gehigarrian Pedro Artetxerekin izan dugu gure hileroko hizketalditxo. Pedro dugu

kalera astoz jeisten den elgoibartar bakarra.

Gainontzean gauza berezirik ez. Eguraldiak fagundu zuen eta hala igarri zen Plaza Txikira hurbildu zen jendetza ikusirik. Ez du, ez, Eigoibarko feriak inguruko herrietako azoken inbiria handirik. Produktua egon badago eta jendea ere urreztatzen da. Kaliatea eta kantitatea batuz emaitza ezin hobea suertazen da hileroko azken larunbatean izaten dugun ferian.



PRIBOTZCONIST211



fladam, 9,ffirtac:

• **Kalean bizi zara, ez?**

Bai, Sigman izan nitzan lanian 32 urtian, ezkondu eta kalia erosi genduan pisua. Baina ganadu guztia Arregitorren dakat, San Roken, zentralan onduan.

• **Halere baserritik bizi zara.** Bai, orain 10 urte Sigma laga eta ganadutik, esnetik bizi naiz.

• **Zenbat behi daukazu?**

- Hamalau danera, zortzi behi eta sei txahal, suizak danak.

• **Sari bat irabazi berri duzu-** Bai, Tolosan izan naiz, Gipuzkoako txapeketan. Orain 37 urte jun nitzan estraineko aldiz eta ordutik ez dot falta izan. Aurtan, lehenengo atera dot bi urtetik beherako txahaletan eta hirugarrena bost urtetik gorakuetan.

• **Kalean zenbat litro saltzen dituzu?** - Egunian 70 inguru.

• **Eskuz jeisten al dituzu?**

- Lehen bai, makinian kontrakua nitzan. Egun batian ekarri zien makinia probatzeko eta gustatu jatan, askoz hobia eta garbixaua da. Egunen batian argi indarra juten bada, a ze lan behi danak eskuz jeisten!

• **Ba al daukazu okelaren labelaren berri?** - Bai, ondo beixitzen jata. Bertako produktua indartu bihar da, onena da eta, naturaiena. Gaur egungo mundua artifizia da eta gauza naturalak bultzatu bihar dira.

Frantziarrak eredu



Gipuzkoako Mendi Nekazaritzako Elkarteak, 1994. urtean Frantziako zenbait herrialde bisitatu asmoz bidaia bat antolatu dugu, ekintza desberdinak ikusteko beta izan dugularik.

Kontuan izan behar da honelako bidaia batean, baserritarrak, teknikoak eta kargu politikoak elkarrekin joaten direla. Hau dela eta, bakoitzari dagozkion arlo ezberdinak jorratu beharra izaten da, eta ahal den neurrian guzti hauek lotura bat izan behar dute. Honela, posible izan da esplotazio ezberdinak bisitatzea, komertzializazio sare bat ezagutzea edota esperimentazio zentru bat ikustea. Britainia, Pais de Loire, Limoges, Cognac, Dordogna eta Atlantiar piriniotan zenbait ekintza ezagutzeko aukera izan genuen. Ekintza guztietan produkzioa oso garrantzitsua bazen ere, esplotazio guztietan transformazioak eta komertzializazioak garrantzia handia zeukaten.

Bisitatutako esplotazioetan txerri, orein, ganadu, ahate, ardo, sagardo esplotazioetan, produzitzeaz gain saltzeaz ere asko arduratzen dira. Gehienetan produkzioaren inguruan diaporama bat, bideo bat edota gidatutako bisita bat prestatuak zeukaten, eta guzti hau saltzeko helburuarekin, hau da, diru iturri bat sortzeko helburuarekin.

Ikusi genituen esplotazioak 60-80 hektareatakoak ziren, Gipuzkoan, aldiz, 4-5 hektareatakoak dira. Frantziako esplotazio gehienak makinekin lan egiteko modukoak ziren, hau da, aldapa txikiekin.

Bidaia honetatik atera dezakegun ondorioa zera da: nahiz eta gure auzokide diren frantsesek daukaten produktibitateko erraztasunek ez izan gure esplotazioekin zerikusirik, komertzializazio erarekin eta betiko irabazientzako osagarri diren diru iturri berriekin atera daitezkeela ondorio zuzenak.

Asier Atbizu
DEBEMENeko gerentea



Juan Iturbe (39 urte)
Errizu baserria, Asteasu

Burdeoseko feriara jun izan naiz traktore asuntora. Honezkero zortzi bat aldiz jun naiz, udaberri partian. Hura ikusi, enteratu eta gero etxerako kopiatu. Lau lagun juten gera, gure kontura.

Jose Ayarzagüena (urte)
Aransolo baserria, Berriz

Frantzian, Burdeos en egoten dan ferira inoiz jutia intentau dot ganadua ikustera baina ez naiz sekula ailegau. Diputaziotik edo agrariatik laguntzak egon ezik horrek biajak karuak dira.



Juan Uranga (58 urte)
Urkirigoiko baserria, Madarixa

Sekula ez naiz jun. Baserrixan bakar samarik zela nauan ba... Neuk ardixak dakadaz eta horren bueltan interesa beti izaten da ferixan, Burdeoseko ferixan zer gauza izan dian jakiteko.

Rurmo Maguregi (76 urte)
Antxusietta baserria, Urruzuno

Aukerarik ez dot sekula izan juteko eta orain zahartu naiz ni. Berbetiak ere badaka zerikusixa, idiomia ez badakizu eta hizketia emateko trankil ez bazaude... Holako ferixak ondo daude begixak zabaltzen eta esperientzia ematen debe.



Santi Lizarralde (31 urte)
Agarre baserria, San Roke

Extranjerira ez nazi sekula jun. Torrelavegako ferixara jun izan naiz eta erosi ere izan dot. Kanpora jutia etxata tokau sekula, lehen Kutxak organizatzen zaban eskursio tipora baina aspaldixan ez.



San Lorentzo, San Pedro, San Roke, Urruzuno, Arriaga, Altzola eta San Migel. Zazpi hilabete dira "Kale zulotik baserrira" gehigarria hasi genuenetik. Orain arte, Elgoibarko auzo ezberdinak ezagutarazi nahi izan ditugu baina, joan zen hileko alean eman genuen azkenaren berri, Altzola. Hemendik aurrera, baserriak ezagutuko ditugu, non dauden, nortzu bizi diren, nola bizi diren.. Hona hemen Etxeberrizabal baserria, berarekin irekiko dugu atal hau.

Egun bat Etxeberrizabalen

Goizeko zazpitan jeiki eta lehenengo lana 17 behiak jeistea da, makinaz. Esnea hartu, boltsatan sartu, kotxea kargatu eta kalera, saltzera. 150 litro esne saltzen dituzte egunean. Ostean, baserrian beste lan asko geratzen da. Ganadua zaindu behar da, ortuari errepa-sua eman, arraultzak jaso, oiloei jaten eman... Baserrian ez dago ordu-tegi finkorik, baserriak berak agintzen du. igande arratsaldeak aprobetxatzen dituzte atsedena hartzeko. Jabierrek, "Hueska aldera eskapadaxo bat" gustura egingo lukeela aitortu digu.

Ongarri naturala erabiltzen dute Etxeberrizabalen, zimaurrea eta karea. Zimaurrea fermentatu eta ortura botatzen da. Bertan sor daitezkeen mamorroak, zizareak eta bestelako guztiak hil egiten dira eta mamorro hauek hiltzera-koan, usteltzerakoan, lur-rarentzat ongarri bihurtzen dira.

Belar sendagarriak

Ahal duten guztietan inguruetan jasotako belar-rrak erabiltzen dituzte gaitzak sendatzeko. Ganaduari, adibidez, pasmo belarra egosi eta haren ura ematen diote edan dezaten. Gizakiarentzat aitzitik, esan digutenez, pas-



Egunean 150 litro inguru esne jeisten dituzte Etxeberrizabal baserrian.

Einaa 1whazzauu,

- **AUZOA:** San Lorentzo
- **SORRERA:** Ez dago data zehatzik, familia bereko belaunaldi asko bizi izan dira baserri honetan.
- **BIZILAGUNAK:** Josefa Muguruza, 65 urte, Jose Mari, 58 urte, Manuel Muguruza, 50 urte eta Jabier Muguruza, 47 urte.
- **LUR HEDADURA:** 8 hektarea etxe inguruan.
- **ANIMALIAK:** Behiak, behorra, oiloak, untxiak, ahuntza, usoak eta txerria.
- **PRODUKTUAK:** Barazkiak orokorrean, porrua, aza, azalorea, erremolatxa, intxaurrak, gereziak...
- **BIZIMODUA:** Baserritik bizi dira, esnetik.

mo belarra oso fuertea da, nahiz eta azukrea edo ezta bota, ez da haren zapora garratza gozatzen. Halere, tamainan hartuta eta zaingorriarekin nahastuta zaporea askoz suabea-go da. Katarroa dutenentzat aproposa omen da edari hau, bai eta berbena belarra ere. Garai batean, emakumeek umeak izan eta gero infekzioak izaten omen zituzten. Odo-la eta barruko zikinak garbitzeko asko erabiltzen zen "arto bizarrak" txixa eragiten omen du, barruak garbituz.

Baserriko bizitza

"Gustatu egin behar jatzu baserrixa ze bestela danari hartuko zenioke amorrua, ganaduari, txakurren zaratiari, oilueri... Hemen bizitzeko estimatu egin bihar da, maitxatu. Animalixak ondo tratatu ezkerro asko emateizue, pertsonak baino gehiago". Halere, Josefak esan digunez, "txikitan eskrupulosa xamarra nitzan. Aitxa eta ama ibiltzen zianian ganaduakin partuakin edo ni etxian egoten nitzan zain, txokolate-esnia ogixakin jaten. Nazka ematen zian horrek. Orain, neu ere ibiltzen naiz ganaduari erdizietan laguntzen. Zelan aldatzen diran gauzak!"

SOSLIMX

Etxeberrizabal baserrian txerria ere badaukate. Urtean zehar egoki hazi eta gero, hura hil eta urte guztirako odolosteak, txorizoak eta bestelako jakiak egiten dituzte. Gaur egun, kaletarrek ematen dizkieten ogiak esnearekin nahastu eta hura ematen diote txerriari jan dezan. Halere, garai batean beste "sekretu" bat bazen. Asuna batu eta estalpetan egoten zen su haundi batean egosten zen. Egosi ondoren, asuna ateratzen zen, sustarra kentzen zitzaion eta asun-ura artirinakin eta gatzurarekin nahastuta ematen zitzaion txerriari. Orduan ere benetan txerri ederrak hazten zituzten.

Pedro Artetxe:

"Gaztetan, astukin Eibarrera juten ginan kerixak saltzera"



duki naban nik maisu bat, "maestro cojo" deitzen ziuena, Don Mariano izena zakan. Ez dakit zergatik eman zian matraileko eder bat eta etxera. Akabo, esan naban nik etxian gehixao ez nitzala jungo eskolara. Orduan Don Erasmok partikular ematen zaban hilian duro bat pagatuta ta haretxena jun nitzan. Harek neri ez zian jotzen behintzat". Pedro Artetxek gogoan dauka bere eskolako lehen eguna. Oroitzen da, baita ere, nola autopista egiteko euren baserria bota zuten. Gero berria altxatu zuten, beste toki batean. Andikano baserrian jaio eta han da bizi. 79 urte dauzka. Gauzak asko aldatu dira txikia zenetik baina Pedrok, bederatzi urte zituenean hasi zuen ohitura jarraitzen du. Astero, astoa hartu eta baseritik kalera jeisten da, bere ortuko barazkiak saltzera.

- Pedro, ba al dakizu elgoibartar bakarra zarela kalera astoz jeisten dena?

- Izango naiz, izango nalez. Bederatzi urte nitxuanian jarri nitzan lehenengo aldiz astuan gainian. Gainera, gurera ez zauan biderik kotxiakin jun etorrixa egiteko; horregatik, derri gorrez bihar gendun astua ortuko gauzak kalera bajatu eta saltzeko. Bidia egin zabenian, berriz, ni zahartuta nauan kotxia nola ibiltzen zan ikasteko eta astuakin jarraitxu naban.

- Ba al dakizu asto gainean ibiltzen?

- Orain sasoirik ez dakat baina lehen makina bat aldiz ibilitxakua naiz ni asto gainian. Gaztetan Elgoibartik Eibarrera juten ginan baserritar asko kerixak saltzera. Astua hartu, haren gainian jarri kerixaz betetako fardelak eta hari arre eginda abantatzen ginan bidian. Eibarrera ailegau, astuari so esan eta bueltan, geu etortzen ginan astuan gainian jarritxa.

- Kotxe gutxi ibili behar horretarako.

- "Ya lo creol" Mutil koskorra nitzanian bi kotxe bakarrik zaozen herrixan.

Lagun ona al da astoa?

- Gizonantzat baserri dautan lagunik onena. Txakurrak jaleua ateratzen dau demasa. Astua, ostera, trankila

da, mantsua, lagun ona.

Ez al dira buru gogorak?

- Nik neure bizitzan lau edo bost asto euki ditudaz eta ez dot inokin problemarikan euki. Astuari ondo tratau bihar jako, bihar dan moduan jaten eman eta listo. Suabe ibili ezkerro ez da egoten problemarik, tratu txarra ematen bajako laster endredauko da.

- Bentajak asko dira, beraz.

- Bentajak edo... Kotxia akaso komoia izango da baina astuak hogeita bost urte irauten ditu problemarik eman gabe. Kotxiakin, ostera, askotan ibili bihar zera gauza bat estropeatu dala eta haura konpontzen, dirua gastatzen... Astua neuk estazivan aparkatzen dot eta hantxe egoten da bera trankil trankil mobitxu barik, nahiz eurixea egon nahiz elurra egin. Pisu ipini gainian eta haura ez da kejatzen.

- Zenbat balio du asto batek?

- Astua korrientia bada hamar mila duro inguru.

Izenik ba al dauka?

- Izena? Astua, zelan izango da ba!

- Baserrian jaio eta hantxe betiko?

- Neu ezingo nitzan kalia bizi. Nik ortuan lanik ez dakatenian ere, trankil trankil egoteko txorixen kantua bihar izaten dot alban.

AZALOREAI

■ SORRERA: Asia, Libano eta inguru horietan omen du bere jatorria barazki honek. Europara XVI. mende aldera hedatu zen.

• FAMILIA: Crucifera

• IZEN ZIENTIFIKOA: *Brassica oleracea* var *botrytis*.

■ KLIMA: Hezea. Izozteak eragin ezberdina du azalore motaren arabera.

■ ZOLUA: Arina eta hezetasunari ondo eusten diona.

■ EREINTZA: Udaberriko azalorea irailaren erdi aldera ereiten da hazitegian; udazkenekoa, berriz, maiatza edo ekaina aldera.

■ LABORANTZA ELKARKIDEAK: Apioa, tipula, letxuga, erremolatxa, lekak, indabak,



Micia Gill

"Tropiko" hanburgeseriakoa

- **Gustatuko ai litzazuke tropikoan bizitzea?** **1** Toki lasaiak gustatzen zaizkit nahiz eta nere lana eta tabernarekin zerikusirik ez duen.
- **Zer egingo zenuke desertuaren erdian?** **1** Batera eta bestera ibili, gaua iritsi aurretik zerbait edo norbait aurkitu asmoz. Egunez bero handia badago gauetz izurgarrizko hotza egiten du.
- **Beroa nahiago duzu, beraz.** > Bai, oso hozbera naiz.
- **Zein hiru diska eramango zenituzke irla batera?**
Elton John, Tina Turner eta Joaquin Sabinaren edozein.
- **Norekin gosaldu nahi zenuke?**
Nere senarrarekin oso gustura gosaltzen dut.
- **Nundik hasten zara irakurtzen egunkaria?**
Erditik, Gipuzkoako ediziotik.
- **Zer sartuko zenuke ogi artean jan eta desagertzeko?** **1** Egoismoa.
- **Zerk eragiten dizu digestio txar bat?** **1** Harrokeriak.
- **Bizitza plater konbinatu bat balitz, ze osagarri jarriko zenizkioke?**
Betikoak, osasuna, dirua eta maitasuna.
- **Langostinoak piantxan ala "patatas bravas"?**
D Mementuaren arabera, baina biak jaten ditut gustura.
- **Barra atzetik entzun duzun gauzarik politena?**
III Edozein piropo, gauza orijinalak entzuten dira. Lehengo egunean "mi ovejita" esan zidan batek.
- **Bakailaoa pii-pilean ala kasetean.**
Bakailaoa gorroto dut, edozein erataria.
- **Umore txarrez zaudenean?** **1** Jendearen aurrean beti aurpegi ona ipini behar da eta azkenean umore txarrez zaudela ahazten zaizu.
- **Igande arratsaldea ala astelehen goiza?** **1** Astelehen goizak ez zaizkit gustatzen, aldapa gora hasten da eta ez da jeisten ostirala arte.
- **Baso beiraren bitartez etorkizuna ikusiko balitz, nolakoa izango litzateke zurea?** **1** Oso ona, itxaropentsua ikusten dut etorkizuna.
- **Kalean txeke zuri bat aurkituko bazenu "eramateari" sinatua, zer egingo zenuke?** > Hutsunea bete eta kobratzera joango nintzateke.
- **Eta zer egingo zenuke diruarekin?** **III** Zorrak ordaindu.
- **Eguneko argitasuna ala tabernetako iluntasuna?** **1** Argitasuna.
- **Nola erakarriko zenuke bezero berri bat?** **1** Janari ona, merke eta giro ezin hobean eskaintzen dugula esanez.



ARRANTZALEAK


DOINUA: Leiho ertzetik

Hegoaldeko arrantzaleak ez dute giro atsegina agintariek promesa asko ahal baldin bada engaina Europa handian sartu nahi gendun eta hauxen da ordaina bolanten joko zikina egiten ari da naina (BIS) nahizta sufritu garbi jokatzen zuek egin ahalegina edo bestela behin betirako hilko da itsaso **urdina** (BIS)

Sarearekin hampatutzen dabilta hegaluzea asko hartuta ere gehiago hauxen da ezin ase zergaitik utzi behar ditugu ohitura onak atzea guztia doa galtzea beTotu bai da eltzea (BIS) Arrantzaleak dabilkitena bakoitzak bere legea hau izan leike gaurko janari eta biharko gosea (BIS)



XABIER ASTIGARRAGA-



913 A

Nazioarteko IV. Xake Txapelketa

Nazioarteko IV. Xake txapelketa hil honen 16an aurkeztuko da ofizialki eguerdiko 1,15etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hilaren 20an hasi eta astebeteko iraupena izango duen txapelketa honetan iaz baino kategoría handiagoko jokalaria hartuko dute parte. Izan ere, urtero kategoriaz igotzen doa txapelketa, iaz Sko maila izan zuen eta aurten 10ekoa izango du. Asmoa Espainiako txapelketarik garrantzitsuena den Linares-eko txapelketaren parera heltzea da, 15eko kategoría du Linares-ekoak. Parte hartuko duten jokalariaik Mikhai Suba, Elizbar Ubilava, Felix Izeta, Mario Gomez, Jesus Iruzubieta, Rafael Alvarez, Pablo San Segundo, Glenn Flear, Antonio Antunes eta Aleksa Strikovic dira.

Masaia ikastaroa

Olaizaga Kiroldegiak masaia ikastaroa antolatu du 1995. urteko urtarriletik maiatzera bitartean. Dagoeneko izena emateko epea irekita dago. Plazak mugatuak izango dira, gehienez 12 pertsona. Ikastaroa Olaizaga kiroldegiko masajistak, Migel A. Dominguezek emango du. Dominguez hanketako erreflexoterapiari diplomatua da. Gai hauek emango dira: erreflexoterapia, erlajatzeko masaia terapeutikoa, erlajazio masaia, kirol masaia eta belarren garrantzia medizina naturaiean. Klaseak larunbat goizetan izango dira, 9etatik letara bitartean.



Iñaki Santos:

"Mendian aske sentitzen naiz"

1 Aspalditik mendian, ez?

- Askok, 26 urte. Futbolaria nintzen ni, gero soldaduzkatik libratu nintzen eta osasun aldetik ez naiz inoiz oso ondo ibili. Mendizaleak ziren lagunak neuzkan eta haiek erakutsi zizkidaten lehendabiziko lekuak.

1 Igo zenuen lehen mendia?

- Demasa izan zen. Sabin Txurruka-rekin Urbiara joan nintzen. Peruaitzera joan ginen. Lehen aldian izan zen, lehen milakoa. Txanpaina ordaindu nuen egun hartan.

1 Morkaiko Elkartean ere egon zara.

Direktiban, eta presidente ere izan naiz. Elkartean geunden garaian, taldeka ibiltzen ikasi nuen, beti albokoari laguntzen. Oso inportantea da mendira igotzean, ahal duena eta ezin duenaren artean ekilibrioa gordetzea. Poliki doana ez da inoiz baztertu behar eta igotzeko motibazioa eman behar zaio. Morkaikoren ibilaldietan bultzatu izan den pentsakera da. Niri leku asko erakutsi didate, beste asko nire kabuz ikasi ditut, ibiliaren ibiliz.

1 Ia astebukaera guztietan irten zara, ez?

- Bai. Pirinioetara edo Picos de Europa. Gehienetan Pirinioetara, Ordesa, Belagua, Benasque, Sallent de Gallego... Pirinotako berdegune eta erreken konbinazioa asko gustatzen zait.

1 Zer da zuretzat mendia?

- Eskape



bat. Egun guztia erreminta makinan lanean nago eta mendian libre sentitzen naiz, nahi dudalako joaten naiz, inork inposatu gabe. Mendian erlazio berezi bat sortzen da, naturala, sozialki denak gara berdinak. Taldeko sentimendua oso sendoa da.

1 Bakarrik ala norbaitekin?

- Haseran bakarrik ondo sentitzen zara, libre. Gero egoera aldatu egiten da, norbaiten falta sentitzen da, konplikazioak daudenean batez ere.

1 Erretzeak ez al dizu kalterik egiten?

- Bai, baina nik nere erritmoa daukat. Nik beti esaten dut, "pausu lasaia eta begirada aurrera".

1 Zein mendira igotzeak egingo lizuke ilusioa?

Pieos-en "Tabla de Lechugales", ez naiz inoiz izan. Pirinioetan denak gustuko ditut. Hori bai, bide berriak ikertzea gustatzen zait. Abuztuan, adibidez, bideak ezagutzen ibiltzen naiz, gero elur garaian, nondik gabiltzan jakiteko.

Inpaktatu zaituen leku bat?

- Pirinio frantsesera joan nintzen lehen aldian, Lago de Goo zoragarria irrtitu zitzaidan, Vignemale atzean eta inguru arbolaz beteta. Ordesa ere oso polita da.

- Adina: 46
- Aldapak igo ala jeitsi? Igo, zuk markatzen duzulako erritmoa.
- Mendirako sasoirik politena? Udaberria eta udazkena.
- Igo duzun mendirik altuena? Mont Blanc.

1 ANCHUSTEGUI s.a
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
 Antonio Arrillaga, 6-8
 behea
 83 Postakutxa
 Tel, 74 33 44 - 74 06 92
 Fax 74 37 11


Biltegia:
 Arregitorre, 10 - 14 behea
 Tel. 74 20 38 - 74 23 71
 20870 - ELGOIBAR
 Gipuzkoa

f7 ELEKTRONIKA
BIRE
 EILEKTRAGAIWAK

Ubitarte 3 - Tel. 74 14 87 ELGOIBAR

Egoitz Mora GipL zkoa.co Haurren Judo Jokuetan txapeildur Izanda

Ibai gimnasioko Egoitz Mora Ulacia elgoibartarra 55 kilorainoko kategorian txapeldun izan zen joan den igande goizean Olaizaga kiroldegian burutu ziren Gipuzkoako Haurren I. Judo Jokuetan. Gipuzkoako Judo Federazioaren eskutik eta Gipuzkoako AIdundiaren diru laguntzaz antolatuta, Gipuzkoako herri gehienetatik etorritako 250 bat judokak parte hartu zuten,



Gipuzkoako herri ezberdinetako 250 haurrek hartu zuten parte.

Haurren 1. Judo Jokua 11 urtera bitarteko haurren borrokaldiekin hasi ziren. Erakustaldi moduko borrokaldiak izan ziren, lehiaketa kutsurik gabekoak. Herri ezberdinetako 200 bat haurrek, denek denek aurka, jardun zuten judoko "llave" ezberdinak egiten, harmailak betetzen zituzten ikusleen gozamenerako.

Hamabi eta hamairu urte bitarteko adinean, 50 bat judokak parte hartu zuten. Maila honetan Gipuzkoako Txapelketaren pareko

borrokaldiak ikusi ahal izan ziren, partehartzai leak txapelketa horretan arituko direnak baitziren. Txapelketetan dominak banatzea ohizkoa bada ere, joku hauetan ez ziren dominarik banatu.

Elgoibartarrak

Ibai gimnasiotik sei judokak hartu zuten parte. Aipatzekoa da Egoitz Mora judokak lau borrokaldietatik lauak irabazi zituela, bere mailan txapeldun izan zelarik. Egoitzek Gipuzkoako Haurren Judo Jokuetan parte hartzen duen

lehen aldia da honako hau. Datorren jokuak hil honen 19an izango dira Irunen.

Klubn arteko txapelketa

Datorren asteko hilaren 12an, larunbata, burutu berri diren haurren jokuetan parte hartu duten Ibai Gimnasioko judokak Ondarrun izango den Klubn arteko txapelketan arituko dira. Kasu honetan dominak emango dira kategorian eta adin guztietan. Ibai gimnasiotik 6 eta 13 urte bitarteko 35 judokak parte hartuko dute.

FUTBOLA Mintxetan Larunbata

12,00: S. D. Eibar - Azkuene (Ohorezko kadeteak)

17,00: Haundi - Aloñamendi

18,45: Eibartarrak - Oiartzun

Igandea 6

12,00: S. D. Eibar - Lagun Onak (2 errejionala)

16,30: Elgoibar - Aloñamendi (Kadeteak)

ESKUBALOA Kiroldegian Larunbata 5

16,00: Elgoibar - Bizkor (Jubenilak)

17,30: Elgoibar - Bidebieta (Kaclete neskak)

E M

n n

FUTBOLA

Tolosa 2 - Haundi 0

Aloñamendi 0 Elgoibar 1 (2. errejionala)

Elgoibar 1 - Mundaiz 1 (Jubenilak)

Elgoibar 1 - Bergara 1 (Infantilak)

Aitzgorri 1 Elgoibar 5 (Kadeteak)

Elgoibar 1 - Antoniano 0

ESKUBALOA

Elgoibar 33 - Urola 7 (Kadete mutilak)

Aloñamendi 20 - Elgoibar 24 (Jubenilak mutilak)

Elgoibar 19 - Durango 12 (Senior neskak)

Ordizi 22 - Txankakua Elgoibar 28 (Senior mutilak)

100 pertsonak eman du izena trikitixa ikastaroan

100 pertsona inguruk eman du izena Olaizaga kiroldegiak antolatutako trikitixa ikastaroan. Izena eman duten guzti horietatik, ordea, 87 baino ez dituzte onartu. Hurrengo ikastaro baten zain geratu dira 13 pertsona.

abonen ostean agian trikitixa ikastaro berri bat antolatuko luke Olaizaga kiroldegiak jendea animatuko balitz. Dena den, ostegun honetan hasi den ikastaroak uste baino harrera hobea izan du. Dantzarekiko zaletasunak eta ezkontzetan dantza egitea gauza arrunta bihurtu izanak zerikusia izan dezakela uste du Kiroldegiko zuzendariak.

Hiru txanda antolatu dira: bi asteazken zehar, bat astearte eta ostegun goizez eta bestea astelehena eta ostegun gauzez eta hirugarrena asteburuan, larunbat goizetan hain zuzen. Goizez 19 pertsonako taldea osatu da, gauzez 35eko eta larunbatetan 33 pertsonakoa. Klaseak emango

dituztenak Haritz Dantzari Taldeko Esther Mujika, Idoia Santos, Nagore Irureta, Lourdes Odriozola, Josune Fernandez eta Itxasne Jauregi dira. Irakatsiko diren dantzak arinarina eta fandangoa izango dira.

Haritz Dantzari Taldeak Gabon Zahar Azoka eguneko dantza jaialdia prestatzeko entsaiatzen hasiko da larunbat arratsaldetan. Izan ere, urtero azoka egunean dantza herrikoiren bat dantzatzen dute Plaza Handian. Ikastaroetan arituko direnek Gabon Zahar eguneko dantzaldian parte hartzeko aukera izango dute. Asmo horrekin dabilzanak larunbat arratsaldetako entsaiotara joan beharko dute.

Olaizaga kiroldegiak



emakumeei zuzendutako defentsa pertsonaleko ikastaroa antolatzeko asmoa dauka abneudan edo urtarirlean. **Hala balitz**, Andraize Emakume Taldearen lankidetzaz egingo litzateke. Dantzen atalean, vals-a, rock-a, tangoa, twits-a... eta antzerako

dantzen gorakada ikusita, "bailes de salon" deritzon ikastaroa ere antolatzeko tan dabilzala azaldu digu Kiroldegiko zuzendariak. Azken hau datorren urtean burutuko litzateke, urtarri-la edo otsaila aldera ziurrenez.

Hitzaldiak lizan ziren Zaharren Itokian



Joan den asteazkenean, hilak 2, zenbait hitzaldi izan ziren Zaharren Biltokian. Urtero Gipuzkoako Jubilatutako eta Pentsiodunen Elkarteak antolatzen duen ekintza bat da honako hau. Gaiak, Zaharren biltokiak, osasuna eta Diputazioako zerbitzuak izan ziren. Hitzaldien ostean bazkaria izan zen. Argazkian ezkerretik eskumara: Iñaki Insausti, Zaharren Biltokiko lehendakaria; Lorenzo Hernaiz, Gipuzkoako Jubilatutako eta Pentsiodunen Elkarteak lehendakari ordea; Eusebio Gil, Deba Beheko Jubilatutako eta Pentsiodunen Elkarteko lehendakaria; Alberto Garela, Gipuzkoako Jubilatutako eta Pentsiodunen Elkarteko lehendakaria; Juantxo Etxezarreta, Teodoro Santa Cruz eta Ricardo Merino.

Collagea, budiak apurtzearen estetika

Helena Ormazabal elgoibartarren collage erakusketa dago ikusgai egunotan Kultur Etxeko erakusgelan. Elgoibartar gazte honek postalak erabili ditu gehienbat collageak egiteko. irudiak apurtuz eta objektuak testuingurutik atereaz, emaitza zeharo ezberdina lortzen du.

I more punturik eta ironia kutsurik ez zaie falta Helena Ormazabalen lanei. Pop motako look edo estetika dute 70. hamarkadako postalekin egindako collageek. Helenak berak urteetan gordetako postalak ezezik, argazkiak ere erabiltzen ditu. Igarotako garai batekoak izan arren, nolabait bueltan datorren estetika bati erantzuten diote.

Eduki edo mezu konkretu bat dute irudi guztiek, "hor daude norberak nahi duen bezala inter-

preta edo ikus ditzan". Garai baten islada dira, orduan bultzatzen ziren baloreak begi bistan jartzen dituelarik: Familia zoriontsuak, bikote xarmargarri eta maitagarriak, Euskal Herriko dantzari jatorrak autopistan argazki baterako posean... Bigarren irakurketa bat eginez, guztiz pertsonala, errealitate absurdoekin jolasten du Helenak, egoera oraindik absurdoago edo barregarriagoak sortuz. Helenaren ustetan umorez ikusi behar diren irudiak dira eta bapatean sortutako ideiak isladatzen dituzte. Kolorea ere funtsezko elementua da, kolore biziak batez ere.

Erakusketa hila-
ren 15era arte egongo da ikusgai. Bisita orduak: 7etatik 9etara astegunetan eta 12etatik 2etara jaiegunetan.



EMAKUME BEGIRADA

*Sentsibilitatearen eremu eta emozioen adierazletzat hartu izan ohi da beti Artea, gizaldi eta gizal-
. menpe egon eta darraien*

Adiretean

Horrexegatik artelan gehten-tsueneke treheki garraiatu dute harren ideologia, kritika feminis-tak horren argi azaldu duen legez. Oraindik orain, honakoxe giroart datorkigu Helena Ormazabalen lehenengo erakusketa. 1994. hone-tan, errealitatearen izakera horren brintzaturia dagoen honetan, ez da harritzeko egileak "collage" tek-nika aukeratu izana. Emaitza, ustez azalderia diren irudikapertak dira, baina, zuhurtasun zorrotzez gainezka era berean. Adibidez, hortxe dago korridetako zezenaren antzera irudikatutako emakumea, korridetan aherrea baita gizonari aurre egiten diona, toreatu ostean bertan hiltzeko. Ez du gutxiago hunkitzen Elgoibarko paia-saiaren irudikapenak. Zartatutako postala, ondoren berremikitakoa errealita-tea sakonago azalduaz-

Baina tira, uste izango duzue-nez, artelan hauen interes bakarra ez datza edukian. Artista elgoibar-tar honen gaztetasuna nabarmen ageri da hegiradari sorrerazi beharreko irrikaz kezkatzen baita, izan ere, ihes egiten dio itxura htt-tsezko amaierari, alegia, dekora-zio axalari. Nola lortzen duen hau? Estetika anitzak nahasiz, hau da, surrealista, pop-a, kitch-a,... guztiak sekulako nortasunez josiz.

Hitz gutxitan, gertaeraren "bertsio berria" dakarkigu aurre-ra, modu garbian aurkeztua, giza-kiaz eta gizarteaz pentsaeraztera garamatzen bertsioa.

Aipatutakoagatik eta abarra-gatik, ustegabeko gozoa dugu era-kusketa hauxe. Zatozte.eta begira.

XABIER ARAKISTAIN
atzultzailea: Atia Aizpiri)

,deltea —

Bergarako Jardun elkarteak **KOMIKI LEHIAKETA** antolatu du Udaletxeko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Adinaren arabera hiru talde bereiztuko dira: OHOk 6., 7. eta 8. maila batetik, 14 urtetik 18ra bitartekoa bestetik eta 18 urtetik gorakoak hirugarrenik. Lanek euskara idatziak behar dute izan. Epaimahaiak kontuan izango ditu euskararen aberastasun eta zuzentasuna, argumentua eta marrazkien kalitatea eta originaltasuna. Lanak aurkezteko epea 1994ko abenduaren 12an bukatuko da eta honako helbidera bidali behar dira: Jardun Elkartea, Masterreka 13, behea. 20570 Bergara.

IX. IPUIN LEHIAKETA antolatu du Muskizeko Udalak, Lanak gaztelaraz idatziak egon behar dira, gutxinez 4 orrialde eta gehienez 12. Lehen saria 150.000 ptakoa da, bigarrenari 50.000 pta emango zaizkio eta 20.000 ptako biu akzesit banatuko dira. Lanak abenduaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira. Kultur Etxea, Cendeja katea, 29. 48550 Muskiz.

Aurrekoarekin bat, **XII, MARGO LEHIAKETA** antolatu du Muskizeko Udalak. lehenengo saria 115.000 ptakoa da eta bigarrena 75.000koa. Teknika librea da eta margoaren azalera 2,50 mxmkon, Azaroaren 18a baino lehen bidali behar dira lanak Muskizeko Kultur Etxera.

Azaroaren 5ean, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, **SOROTAN BELE** musika taldeak bere diska berria aurkeztuko du, "Mundu egian".

SOS BALKANES sortu da konfirmazio taidetik

40 gazte inguru dabilta iaztik Parrokiako Konfirmazio taldean. 15-16 urte bitarteko neska mutilak dira. Talde honek burutzen dituen ekintzarik garrantzitsuenak elkarbizitzak dira. Urtean sei irteera inguru egiten dituzte; astebukaera osoko irteerak izaten dira. Pare bat egun igarotzen dituzte elkarrekin eta denbora guzti horretan era ezberdinetako ekintzak burutzen dituzte. Horien artean azpimarragarrienak debateak dira.



Gai ezherdinak planteatzen dizkieta arduradunek eta eurek horiei buruzko iritziak azaltzen dituzte. Orain arte intsumisioa, gaztetxea eta hestelako gaiak jorratu dituzte, gaur egungo gaiak, egunerokotasunarekin zerikusia duten gaiak izan dira. Hemendik aurrera, ordea, erlijioari zuzenean lotuak dauden bestelako gaiak landuko dituzte. Esan digutenez, orain arte konfirmatzeko bi urte eman behar ziren parrokiako konfirmazio taldean. Gaur egun, aldiz, ez da era berean egiten. Denbora baino garrantzitsuagoa da norbera konfirmatzeko benetan prest eta konbenzitua egoeta.

SOS Balkanes

Konfirmazio taldeak urtean zehar egiten dituen irteera horietako batera SOS BALKANESeko kide bat joan zen. Honek, taldearen berri eman zien, egiten zutena azaldu zien. Hortik, konfirmazio taldekoen artean, hatnar neska-mutil bildu eta Elgoibarren ere SOS BALKANESeko

ko talde bat sortzea erabaki zuten. Hamabostean behin elkartzen dira, egin daitezkeen guztiak pentsatu eta antolatu asmoz, "gure asmoa Bosniako egoeraren berri ematea da, han bizi duten egoera salatzea eta, bide batez, baita laguntzea ere". Elgoibartarrek, gainontzeko herrietako SOS BALKANES taldeekin batera antolatzen dituzte ekintzak. Honela, abendu aldera kuestazio bat egin nahi dute eta neguari begira ere karpaina berezi bat antolatuko dute. Besteak beste, oinetakoak, elikagaiak eta garbitzeko produktuak jaso nahi dituzte herritarren artean Bosniara bidaltzeko. Euren Iehen lana jendeari Bosniako arazoa oraindik amaitu ez dela jakinaraztea da. "badirudi aspaldian gauza handirik irakurtzen ez dugula eta ahaztu samar daukagula, baina arazoa oraindik ere hor dago". Bide batez, herritarrei deia luzatzen die SOS BALKANESekin kolaboratu nahi duten guztiak atek irekiak dituztela esateko.

Garajeak

GARAJE BAT alokatzen da pista beltzean bere atarekin.
tr 74 16 97

GARAJE ITXI BAT salgai dut Olaso poligonoan. 114 m= eta 3'5 metrotako altuera. 1.300.000 pta.
Tr 65 23 60 Josetxo (Gauzez)

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
v 74 39 19

GARAJE ITXI BAT alokatu nahi genuke, bertan kitarra eta baxua jotzeko. Lehenbailehen.
v 74 22 70 Igor Gauzez 9etatik IOetara

GARAJE BAT saltzen da pista beltzean. Marraduna. Prezio onean.
r 74 08 79

GARAJE BAT alokatzen da Urasandin.
"n" 74 31 07

Salerosketak

Ondo dagoen FRIGORIFIKO BAT saldu nahi nuke.
v 74 28 24

"Ingeles" tipoko KOTXE KAPOTA erdiberria, eta MOISES BAT salgai ditut.
v 74 10 42

NINTENDOKO BI ZINTA saltzen ditut: Goonies II (3.500 pta) eta Super Mario Bros 3 (4.995 pta).
IT 74 36 80 Aser Gauzez deitu

AKORDE01 BAT erosiko nuke. Botoiduna.
v 74 00 78 Deitu eguerdian edo gauean

BROTHER TRIKOTOSA bat saltzen dut. Bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.
n" 74 18 51

PEUGEOT 405 BAT saltzen dut. Deitu 20,30etatik 22etara.
v 14 30 52 Jose Maria

MENDIKO plastikozko Koflach Viva Soft BOTA BATZUK saltzen ditut. Zenbakia 8 1/2 - 9 (41-42) 12 04 44
Deitu eguerdian 1,30-2,00

Lana

HAURRAK ZAINDU eta ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Astelehenetik ostiralera.
v (94) 682 78 18 Iratxe

TITULUDUN ERIZAIN euskaldunak gaixo edo pertsona nagusiak zainduko lituzke gau edo egun, bai etxe edo ospitalean.
74 02 33 Marta. Goizez

MARRAZKETA TEKNIKOKO klaseak ematen dira. COU, UBI, IMH, LHI.
v 74 17 60 Iñaki 74 34 01

PERFUMEAK SALTZEKO jendea behar da. Informazio gehiagorako deitu:
\$ 75 10 07 4etatik aurrera

UNIBERTSITAL IKASKETAK dituen neskak edozein lan egingo luke, 5etatik 9etara.
v 74 04 86 Ana

HAURRAK ZAINDUKO GENITUZKE, astegunetan arratsaldez eta astebukaeretan egun osoz eta gauzez.
v 74 09 85 Nuria/Ana

TITULUDUN PELUKERAK lan egingo luke Elgoibarren. Asteartetik larunbatera. Esperientzia dut.
v (94) 682 78 18 Iratxe

ETXE BAT ALOKATU EDO SALTZEN DUT Torreviejan (Alicante). Bungalow. Altzariak eta garajea.
lzt 74 24 26 Domingo

ETXE BAT ALOKATUKO nuke. Ez da handia izan behar. Ez zait axola non.
Tr 74 44 04 Ana (Gauzez)
IT 12 16 02 Maite (Goizez)

Elgoibarren PISU BAT KONPARTITZEKO lagun baten beharrean gaude.
v 65 38 76 Olatz

PISU BAT SALTZEN DA Mutrikun. 115m', itsasora begira eta gela guztiak kanpoko aldera ematen dute.
Ti" 60 41 20 Arratsaldez Betatik aurrera

BETAURREKO BATZUK galdu nituen larunbat gauean.
v 74 05 78 Jon

Pilarika egunean San Migeleko Plazan mendizale BASTOI BAT agertu zen. 1934ko datarekin.
z* 74 21 40 (Menditxo)

UME TXAKETA BAT galdu nuen Leku Eder eta Maalako parkeen bitartean mriaren 12an.
74 32 94 Ana

URRIAN

Hildakoak

Josefa Albizu Etxaniz,
94 urte (Urriak 8)

Karmelo Sanz
Ortuzar, 64 urte (Urriak 22)

D Ramon Epelde
Arriola, 80 urte (Urriak 27)

Jaiotakoak LAIN

Adrian Araujo
Egiguren (Urriak 2)
1/ David Liebana I nfante (Urriak 3)

Xabier Larrañaga
Etxabe (Urriak 4)
Aitor Murua Perez (Urriak 12)

I Ivan Iriondo Vila (Urriak 14)
Eñaut Ladron U rbieta (Urriak 20)

Maria Jimenez Muñoz (Urriak 23)
Tomas Azpeleta Gabilondo (Urriak 31)

Ezkondutakoak

Jesus Maria Murin
Alonso eta Maria Jesus
Ansola Ansuategi (Urriak 1)

4 | OSTIRALA

22,15 ANTZERKIA
"Las Amazonas del caballo"
Antzestaldea: GEROA
✓ Herriko Antzokian

LARUN BATA

16,00 GARE-REN BILERA
✓ Kultur Etxean
19,30.22,15 ZINEA
"El cliente"
✓ Herriko Antzokian

IGANDEA

15,30 UDAL LUDOTEKA
✓ Kultur Etxean
OHoko haurrentzat
Sarrera: 200 pta hilabete osorako
Arratsaldeko 7,30ak arte
16,30 ZINEA
"Beethoven II"
✓ Herriko Antzokian
19,30.22,15 ZINEA
"El cliente"
✓ Herriko Antzokian

7 | ASTELEHENA

22,15 ZINEA
"El cliente"
✓ Herriko Antzokian

ASTEARTEA

22,15 ZINEA
"El informe pelicano"
✓ Herriko Antzokian
Ikuslearen egttna
Sarrera: 200 pta.

ASTEAZKENA

09,00 IRUDI BIZIAK
"Heroe por accidente"
OHoko haurrentzat
✓ Herriko Antzokian

9 | OSTIRALA

22,15 ZINEA
"Lobo:"
✓ Herriko Antzokian

E I C E 1 1 1 1 A



"EL CLIENTE"

Zuzendaria: Joel Schumacher
Antzezleak: Susan Sarandon,
Tommy Lee Jones, Mary-Louise
Parker, Anthony LaPaglia.

Hamaika urteko mutiko batek, Mark Sway izenekoak, bere anaia txikiena basora eramaten du zigarro bat erretzeko izkutuan. Han daudela abokatu lodi bat autoaren tubo eskapean mangera bat jartzen ikusten dute. Abokatuak hiltzaile bati buruzko istorio bat kontatzen dio Mark-i eta desagertutako senadore baten gorpua leku jakin batean egon daitekeen susmoa azaltzen dio. Anaia txikia, koma egoeran geratuko da abokatuak Mark-i emandako jipoiak eta abokatuaren buru hilketak sortarazten dion inpresioak eraginda. Mark-ek mafia izango du orain atzetik.

ixandak

FARMAZIAK:

5, farunbata: Bidasolo
6, igandea: Bidasolo
7, astelehena: Yudego
8, asteartea Yudego
9, asteazkena: Yudego
10, osteguna: Yudego
11, ostirala: Ormazabal

OKINDEGIA:

6, igandea: ZABALETA

Z I N E A



"EL INFORME PELICANO"

Zuzendaria: Alan J. Pakula
Antzezleak: Julia Roberts,
Denzel Washington, Sam
Shepard.

Darby Shaw izeneko gazte batek (Julia Roberts) Auzitegi goreneko epaileei buruzko hilketei buruzko "Informe Pelicano" deritzon informea idazten du. Astebetean bi gizonen hilketaren lekuko izango da Darby. Hiltzaileak gero eta hurbilago daude beragandik, eta nola hala, bizirik irautea lortzen du. Txostena irakasle eta maitale den Callahan-i erakusten dio, baina hau ere hil egingo dute. Darby-k Gray Grantham izeneko kazetari-ikertzaile haten esku lagatzen du txostena. Txostenak dioena egia dena frogatu behar dute, hiltzaileak harrapatu ahal izateko.



sake

KOPERATIBA

INEKO

ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA

- **Ongarriak Haziak Ureztatze sistemak**
- **Baratze eta jardinerako tresnak**

ONGARRIKETARAKO PROGRAMA

eoitaiktea totezial

AZAROKO ESKAINTZA

EURO 15 ONGARRIAK

Kiloan 2 pta/ko deskontua

500 kiloko ZAKUETAN

2'5 pta/Kiloko deskontua

(Azaroaren 20a arte)

*Azaroan
Abendnan
edo
Urtarrilean*

EURO 15 **500** kg/Ha

PREZIOA

EBAKIALDIORO

▲ Pinuarekin txandakatuz:
SULFAMMO 23 **150** kg/Ha

▲ Purinik ezean: EUROFERTIL
21-2-8 + 2 mg. **150** kg/Ha

29,11
pta/kg.

Itzlarako industrialdea E-13 ITZIAR - DEBA Tel: 19 93 00 19 93 30 Faxa: 19 92 70

Sukalde eta haltzari erakusketa ikusgarria

➤ Aukera zabala egongela, logela eta tresilloetan. Klasikoak, modernoak, errustikoak eta jubenilak.

➤ Hiru solairuko 3.000 m²ko erakusketa.

Larunbat arratsaldean IREKITA
fith



HALTZARIAK
11117MEM2,11
Itzlar gaitza - Tel. 19 91 00 - DEBA



Polo berria.



Txikia bikaina izan daiteke.



Polo berria eta bere teknika.

Autos Eibar, S.A. Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR